



Sinatu dute bidegorriaren lanekin hasteko hitzarmena

TOLOSALDEA ▶ Alegiako, Altzoko eta Tolosako udalen eta Foru Aldundiaren arteko lankidetzaz da

ZATIA ▶ Tolosa-Altzo-Alegia hartuko du; lanak bi hilabete barru hasi eta 2008an bukatu nahi dituzte ▶ 4

JOSE RAMON ARTETA ▶ KANTU IRAKASLEA



AMAJA SAGASTI / GALTZAUNDI

«Oso berezia izango da, mila pasarte ditugu kontatzeko»

Bazkaria egingo dute bihar kide ohiek Eresoinka-ren 30. urtemugan ▶ 2

VILLABONA ▶

‘Ama bat niretzat’ antzezlanaren Gurean ▶ 5



Zumardi-Amalur jardunaldiak aurkeztu dituzte

TOLOSA ▶ Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE), Tolosako Udalak, Kutxak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Zumardi-Amalur natur jardunaldiak antolatu dituzte, «naturara hurbiltzeko». Bidaia eta

antropologia aitzaki, Ekialdeko Afrika izango dute hizpide, asteazkenetik ostiralera, hiru hitzalditan. Angel Ortiz eta Josu Iztueta, Javier Reverte eta Jesus Torquemada ariko dira. N. LATABURU ▶ 3

TOLOSA ▶

Jonan Fernandez ez da Elkarri berriko koordinatzailea izango

13 urtean jardun du kargu horretan; Paul Riosek hartuko dio lekukoa ▶ 7



Jonan Fernandez. J. SAIZAR



JOSE RAMON ARTETA ▶ KANTU IRAKASLEA ETA ABESBATZA ZUZENDARIA

IÑIGO ASENSIO

Bizitza osoa darama abesbatzen munduari lotuta. Talde ezberdinekin lanean aritu ondoren, Eresoinka Abesbatzaren sortzailea izan zen Jose Ramon Arteta tolosarra. Urtetan kantuan murgilduta ibili da; izan ere, bere alaba Ainhoaren pausoak gertutik jarraitu ditu. Munduan han eta hemen ibili ondoren bizitza lasaiago batez gozaten ari da Arteta. Bihar Eresoinkak bere sorreraren 30. urteurrena ospatzeko antolatuta duen bazkaria «benetan berezia» izango dela onartu du, eta urte hauetan guztietan gertatutako hamaika pasarte kontatu dizkio HITZARI.

Kontaiguzuz, zergatik erabaki zenuten Eresoinka Abesbatza sortzea?

Hasiara batean, Tolosan ikasle abesbatza bat sortu zen, Inmakulada Ikastetxeko partaide batzuekin. Orduan nire alabak deitu zidan, Zarautzen lehiaketa batean parte hartu behar zutela eta, maiatza inguruan. Hau ikusita, Ainhoarekin Ispasterrean joan nintzen ahotsa proba bat egitera. Bertan kontralto bezala jarri zutela esan zidan, eta ikaratuta geratu nintzen. Oso tonu altuak eman zitzaizkiz, eta ulerkaizta zen kontralto bezala aritzea. Do alutik zenbait nota gorago kanta zezakeen eta orduan esan nion: 'Ainhoa, zu sopranoa zara'. Orduan, irailan, behar bezalako abesbatza bat sortzea erabaki nuen, umeetan ere ahotsa hezi daitekeela erakusteko asmoz.

«Ahotsa erraz kaltetzen du teknika ez duenak»

Eresoinka Abesbatzaren 30. urteurrena ospatzeko biharko bazkaria «benetan berezia» izango dela onartu du Artetak



AMIAIA SAGASTI / GALTZAJUNDI

Ordurako zuk bazenuen kantua inguruan ezagutzarik?

Bai, nik Maria Teresa Hernandezekin ikasi nuen ahots heziketa, eta ordurako Sakramentinoetako abesbatzarekin lan egindakoa nintzen. Hernandez Maitea Abesbatzako zuzendaria zen, eta harekin hasi nintzen ni mundu honen inguruan ikasten. 28 urterekin Kantu

Gregoriano eta Polifonia Klasiakoan lizentziatu nintzen. Esperientzia zabalagoa nuen mundu honetan.

Beraz, abesbatzen munduan ikasia zinen eta Eresoinka sortzea erabaki zenuen.

Bai, Tolosako ikastetxe ezberdinetan aritu nintzen probak egiten: Eskolapioetan, Pablo Gorosabelen, Inmakuladan...

Poliki-poliki taldetxo bat osatzen joan nintzen. Gerora, Gainerri ikastetxean ere probak egin nituen eta han beste aukeraketa bat egin nuen. Aipatzeko da ikastetxe guztietan atak ireki zizkidatela, eta erraztasunez lan egiten utzi zidatela. Hau izan zen Eresoinkaren hasiera. Gure helburua ahotsak hezitzea zen, eta horregatik banaka-banaka joan ginen ume guztiekin lan egiten.

Desberdina al da umeekin lan egitea?

Ez nuke esango desberdina denik. Kantu lirikoaren metodo berdina erabiltzen genuen; baina, noski, umeen ahotsak badute alderik helduenekin.

Zein dira desberdintasun horiek?

Batez ere ahotsak dituen armonikoak. Kantu lirikoaren oinarria sudurgaineko hutsuneak dira. Helduek hezur hauek garatuagoak ditugu, eta horregatik gure ahotsak armoniko gehiago ditu. Horrek ez du esan nahi umeen ahotsak hezi ez daitezkeenik; Vienako Umeak ikustea besterik ez dago. **Zertan datza ahotsaren heziketa horrek?**

Ahotsak burrunba eztarrian egitea da ohikoa, ahots kordak erabiltzea, eta hori akatsa da. Ahotsak lehen aipaturiko sudurgaineko hutsunetan egin behar du burrunba; hori lortzeko bere lana dauka, baina oinarri-oinarrizkoa da. Airearen irteera posizionatu behar da. Posizionamendu honek ahots-kordak zaintzen laguntzen du. Ahotsa segituan kaltetzen du teknika ez duenak; hezi duenak, berriz, ez du horrelako arazorik izaten. Aipatu ditudan hezurtxo horiek erresonantzia kaxa lana egiten dute. Sinusitisaz hitz egiten dugunean, gertatzen dena hutsune horiek mukiz beteta ditugula da.

Eresoinkarekin sari andana lortu zenuten, zein izan da garrantzitsuenak?

Bada bereziki garrantzitsua den sari bat, Unicef saria, hain zuzen ere. 1983. urtean lortu genuen, eta badu balio berezia beste gainetik. Horrez gain, Tolosako Abesbatza Lehiaketan ere sariak izan ditugu. Lortutako sari hauek gain, bada benetan asegarrira zitzaigun egoera bat. Parisera joaten ginen guztietan, Notre Dame Katedralean abestera gonbidatzen gintuzten, hamaiketako mezan abestera; ikaragarria zen.

Urte hauetan abeslari ugari prestatu dituzu, hauen artean zure alaba Ainhoa Arteta. Zure alaba izateak gogorrago egiten al zuen prestatzea?

Ez da gogorragoa, ez, baina nire alaba izatean nik ezin nituen zenbait gauza esan. Nik berak izugarriko dohainak zituela ikusten nuen arren, ezin nuen askatasun osoz esan, bere aita nintzelako. Bere prestatetan gehiago erakusterik ez nuela ikustean atzerria jo zezan esan nion. Italian aritu zen, Ettore Campoigalliani maisuarekin ikasten; hau Pavarottiren irakasle izandakoa zen, eta beranduago Amerikako Estatu Batuetan Ruth Falcon izan zuen irakasle. Nik hauek guztietatik asko ikasi nuen.

Bihar 30. urteurrena ospatzeko bazkaria antolatuta duzue. Ziur berezia izango dela, ezta?

Bai, guretzat oso berezia izango da. Mila pasarte ditugu konartzeko, gure artean oso harreman ona dagoelako, eta horregatik egun handia izango da. Ainhoa ere gurekin izango da; bazkaria egitekoak ginela esan zidatenean Ainhoa dagoeneko zerrendan zegoen, eta berak ere izugarriko gogoia dauka. Denok gaude irrikitan, 30 urtean zehar une asko daude gogoratzeko.

urteurrena ▶

Joaquin Balerdi Erausquin
(I. urteurrena)

*Zu gabe ez da berdina.
Gogoan zaitugu.*

Ibai eta Alaitz



meza ▶ San Frantzisko elizan.
Igandean, martxoak 12, eguerdiko 12:00etan.

TOLOSA, 2006ko martxoaren 11

hilberria ▶

Juanita Otermin Ezeiza
(Alberto Gaztañagaren alarguna)

Eman diguzunagatik
utzi diguzunagatik
eskerrik asko
zu gabe ez da
inoiz berdin izango
beti bihotzean
izango zaitugu



Bere alabak: Maria Jesus eta Iñaki Zubillaga, Maitane eta Juan Antonio Arana; bilobak: Iker eta Garikoitz. Herenegun hil zen, 87 urte zituela. Meza GAUR arratsaldeko ZAZPIETAN, ALEGIAKO SAN JUAN BAUTISTA parroki elizan, GORPUA BERTAN dela.

ALEGIA, 2006ko martxoaren 11

urteurrena ▶

Isidora Larrañaga Larrañaga
(Lehenengo urteurrena)

Azpeitian hil zen, 2005eko martxoaren 4an, 78 urte zituela,
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Golan bego-



Haren senarra, seme-alabak, anaia, biloba eta gainerako ahaideek haren arimaren alde oituz bat eskatzen dizute, eta arren etor zaitetzela BIHAR, MARTXOAREN 12AN, igandean, eguerdiko 12:30ean, Azpeitiko Soresuko Sebastian Deunaren parroki elizan egingo den urteurrenko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

AZPEITIAN, 2006ko martxoaren 4a

hilberria ▶

Juan Miguel Polo Loinaz

*Bizian jasotakoa
bihotzean eramango degu*

Erautsen lurperaketan parte hartzeko,
igandean Oiarzungo Intxixun (Ugaldetxo) goizeko hamaiketean.



PASAIA, 2006ko martxoaren 9an

INGURUMENA ▶

Zumardi - Amalur «naturara hurbiltzeko jardunaldiak» bidaia eta antropologia aitzaki

Angel Ortiz eta losu Iztueta, Javier Reverte eta Jesus Torquemada ariko dira hizlari lanetan, Ekialdeko Afrika hizpide; asteazkenetik ostiralera, Kultur Etxean



Luis Mari Oiarbide, Ana Arretxe, Jokin Bildarratz eta Iñaki Almandoz, atzo, prentsaurrekoan. ESTI EZEIZA

NOELIA LATABURU

Zumardi-Amalur natur jardunaldiak antolatu dituzte, datorren asterako, Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE), Tolosako Udalak, Kutxako Gizarte Ekintzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean. «Bidaia eta antropologia aitzaki hartuta, naturara hurbiltzeko baliagarriak izango dira jardunaldiak», adierazi zuen Ana Arretxe TEEko zuzendariak, atzo, Donostian egindako aurkezpenean. Guztira, hiru hitzaldi antolatu dituzte, guztiak ere Ekialdeko Afrikari buruz. Asteazkenean hasi eta ostiralera bitarte Kultur Etxean izango dira entzungai; asteazkenekoa euskaraz izango da.

Urtebeteko atsedendaldiaren ostean eta hamabost urte burutu ostean, TEEn «jardunaldiak era txiki baina garrantzitsu baten eraldatzeko beharra» ikusi dute, izaera tekniko abiatuta dibulgazio bidean. «Ikusmira zabalago bat hartzera eraman gaitu, gaur egungo gaiak eta gertuko nahiz urrunekoak leku izango duteneko».

Aurtengoa apustua, beraz,

APUSTUA

Eskari kultural eta sozial handia duten gaiak jorratuko dituzte, beti ere ingurumena oinarri izaki

eskari kultural eta sozial handia duten beste gai batzuk jorratzea izan dute, beti ere ingurumena oinarri izaki. «Konpromiso honekin aro berri bati ekingo dio TEEK», baieztatu zuen Arretxek. Helburu zehatzak ere azpimarratu zituzten; batetik, «antropologiarekin, naturarekin eta bidaiarekin duten esperientzien berri ematea»; bestetik, «ingurumenaren ikuspegi globalizatzaile eta osotu batetara iristea», eta, azkenik, «analisiak, diagnostiko-

ak eta iritzi sendoak egin ahal izatea eta sortzeko gaitasuna hobetzea».

16 urte naturaren inguruan

Tolosako alkate Jokin Bildarratzek TEEK eginiko lana eskertu zuen «ekinbide etxeak egindako guztiak Udalari bermea ematen dionez». Herrira jendea erakartzeko egiten duena goraiatu zuen, halaber. «Elkarrekin gaude eta elkarrekin egongo gara», gaineratu zuen. Bestalde, Garapen Iraunkorren gainean jardutean, «eduki bikoitza» aintzat hartzearen garrantzia aipatu zuen Luis Mari Oiarbide Garapen Iraunkorreko Ahalduinak. Hain zuzen, «globalean pentsatzea eta lokalean egikaritzea». TEEKo proposamenak bat egiten du ideia honekin eta horregatik Foru Aldundiak «babestea»

ZUMARDI-AMALUR ▶

TEEK natur jardunaldiak antolatu ditu datorren asterako. Ekialdeko Afrika izango dute hizpide abenturazaleek, kazetariak eta idazleek.

HITZALDIAK

Hilak 15, asteazkena. *Miloi bat kilometro lur azaletik* izenpean, Angel Ortiz eta losu Iztueta abenturazale tolosarrak ariko dira hizlari lanetan, 20:00etan Kultur Etxean. Joxemi Saizar irakaslea izango da moderatzailea. Hitzaldia euskaraz garatuko da.

Hilak 16, osteguna. Jesus Torkemadak (Donostia, 1955), Nazioarteko politikagintzan eta bidaietan berezitutako kazetariak, *Zauri bat Afrikaren bihotzean* hitzaldia eskainiko du, gazteleraz, 20:00etan, Kultur Etxean. Juanma Goñi kazetaria ariko da moderatzaile lanetan.

Hilak 17, ostirala. Azken egunean *Afrikako ametsa* hitzaldia izango da entzungai, Javier Reverte (Madril, 1944) idazlearen eskutik. Juan Velazquezek moderatuko du hitzaldia, 20:00etatik aurrera Kultur Etxean, gaztelaniaz.

erabaki du, Kutxako Gizarte Ekintzak bezalaxe.

Natur Jardunaldiak —hasiera batean Zumardi izenarekin ezagutuak— 1990.ean egin ziren estreinakoz, «ingurumenaren gaineko kezka hazten hasi zenean». Hizlariak hautatzeko unean, «tokiko jendeari naturaren inguruan dituzten esperientziak kontatzeko eta elkarbanatzeko aukera» eman nahi izan diogu.

ARRAUNA ▶
Gipuzkoako Batel ligaxkan TAKeko 10 batel ariko dira

Tolosaldeko Arraun Klubeko 10 batel ariko dira lehian, gaur eta bihar, Gipuzkoako Batel ligaxkako 3. eta 4. jardunaldian. Arduradunenesanetan, harreta berezia piztuko dute senior-jubenilen nesken bi batelek eta jubeniil mutilen lehen batelek. Gaurko lehia Orion izango da, 13:00etatik aurrera, eta biharkoan, Getarian egingo dute, 11:00etan hasita.

GIZARTEA ▶
Haur Liburutegiko maileguak bueltatzeko deia

Liburutegiak Kultur Etxea egoitza zuela maileguz emandako liburu, bideo eta DVDak Errotara bueltatzeko deia luzatu dute Haur Liburutegikoek. Itzulera errazteko eraikuntzaren kanpoaldean edozein ordutan erabilgarrri dagoen postontzi bat dagoela jakinarazi dute.

HEZKUNTZA ▶
Kirolaren garrantziaz hitzaldia gurasoei

Hirukide Jesuitinako Guraso Elkarteak gurasoei zuzendutako hitzaldia antolatu du. seme-alabentzat kirola egiteak dituen onuren gainean. Ikastetxeko hirugarren solairuan izango da, hilaren 14an, asteartearrekin, 18:30etik aurrera. Euskal institutuko gorputz-hezkuntzako Luis Maria Zulaika ariko da hizlari lanetan. Besteak beste, onura psikologikoak, fisikoak eta sozialak aipatuko ditu irakasleak. Hitzaldian, eztabaidarako galderak, iritziak eta iradokizunerako tartea ere izango da.

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Pisu Larramendi kalean. 112m2.
 Salgai (Berrobi). Pisu, baratz eta txabola. 168.000€
 Salgai (Tolosa). Lokalak. Amaroiz auzoan, Kale Nagusian eta Belate ibiltozian.
 Salgai (Barra). Lokala 60m2.
 Salgai (Tolosa). Garajeak Leidor, Pedro de Tolosa eta Plaza Zaharrean.
 Salgai (Tolosa). Pisu araba ibiltokian.
 Alokatzeko (Arribas). 2 logelako pisu, Tolosatik 17km-tara.
 Alokatzeko (Tolosa). Lokal girota, Foru kalepean eta Garajea Araba ibiltokian.
 Alokatzeko (Tolosa). Bi lokal komertzial ondoan, Laskorain kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

SEGUROS BILBAO

Iurre kalea, 14 - Tel.: 943 671 649
 TOLOSA

Zumardi

aholkularitza integrala

Laskorain, 8 behea • TOLOSA
 Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

BIDEGORRIA ▶

Bidegorriari hasiera emateko hitzarmena sinatu dute

Alegiako, Altzoko eta Tolosako udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Tolosa-Altzo-Alegia bidegorriaren lanei ekiteko

NEREA URBIZU

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosa, Altzo eta Alegiako udalek bizikletari-oinekoentzatzat bidea egiteko lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, atzo, Tolosako udaletxean. Hain zuzen ere, Luis Mari Oyarbide Garapen Eramangarrirako Foru diputatua, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Pilar Zubiarrain Altzokoa eta Olatz Amundarain Alegiakoa izan ziren hitzarmen horren berri ematen prentsaurrean.

Han azaldu bezala, joan den abenduaren 27an pertsonentzako eta bizikletentzako bidea egiteko proposamena jaso eta proiektu bihurtzea onartu zuten. Lehendabiziko fasean, hala, bidegorriak Arzabaltza-Tolosa zatia hartuko luke; eta bigarren fase batean Altzo Azpi-Alegia bidea egokituko litzateke.

Hau guztia burutzeko 900.000 euroko aurrekontua behar izan dute. «Beraz, uda aldean bizikletan ibiltzeko arrisurik gabe eta lasaitasunez ibiltzeko aukera paregabea» izango da, lehenengo tramoari dagokionean, behintzat. Bigarren fase batean, beraz, Altzorekin eta Alegiarekin lotuko dute. Altitzotik Alegiara iritsita, Goerrin barna jarraituko du bidegorriak. Dena 2008. urterako burutzeko espero dute erakundeek.

Ordezkariek azaldutakoaren arabera, «lanak hemendik bi hilabetetara gutxi gorabehera hasiko dira». Lizitazioa aterako dituzte obrak hurrengo hamabost egunetan, eta zeinek egingo dituen erabakiko dute ondoren.



Oyarbide, Bildarratz, Zubiarrain eta Amundarain, atzo, Tolosako udaletxean hitzarmena sinatzen. N. URBIZU

Motorrik gabeko garraioa

Badira urte batzuk Europako Batasuna eta Euskal Autonomi Erkidegoa estrategia batzuk lantzen ari direla ingurumena eta ekonomia gehien erasaten dituzten garraio bideen ordez, autoaren ordez, batez ere, beste bitarteko batzuk bultzatzeko; esate baterako, garraio publikoa erabiltzea eta oinez edo bizikletaz ibiltzea.

Alde guztien asmoa da autoaren ordez garraio bide horiek bultzatzea bi udalerrien artean

egiten diren joan-etorrietan. Eta hori horrela izan dadin, «bizikletari-oinekoentzako ibilbide bat balioestea, bateragarri bihurtuz bizikletarietzko eta oinezkoentzako erabilera eta inguruko jendearen jardura eta eginkizun ugariak, hala nola, laborala, komertziala, aisialdikoak, naturarako sarbidea...».

Aisialdiko bizikletarietzko eta oinezkoentzatzat izateaz gain eta garraio funtzioak ere betez, eraikiko duten bizikleta ibilbide horrek «N-1 errepidearen

Tolosa Hegoaldeko sarreraren eta Altzo Azpi auzorako sarreraren arteko tarteari beste hautabide bat eman nahi die. Tarte hori, hain zuzen, kirol bizikletariak asko erabiltzen duten gunea da, eta arrisku handikoa», azaldu zuten ordezkariek hitzarmenaren sinadura ekitaldian.

Hala, hemendik hilabete batzuetara bidegorri zati berri bat, herriak lotuko dituena, izanen du Tolosaldeak. «Beraz, bizikleta aparkatuta uzteko aitzakiarik ez dago».

IKAZTEGIETA ▶

Tolosaldea Garatzenekin, udaletzeko obrak aurrera

Burutuko dituzten obrekin, ostatuari denda erabilera ere emango diote

ERREDAKZIOA

Ikaztegieta Udalak Tolosaldea Garatzen eskualeko garapen agentziarekin hitzarmena sinatu du herri onuran lanak burutzeko. Urtero enplegua sustatzeko programa bat antolatzen du agentziak; aurten igeltsaritza espezialitatea jarri dute martxan.

Udalak, udaletxean bertan igeltsaritza lan batzuk bazituen, lan horiek talde honi eskaintzea erabaki zuen. Ondorioz, lantalde honen udaletzeko bigarren solairuko guneeetako bat bilera gela bihurtuko du, tabikeak puskatu eta hormak egokitu. Zorua, ateak eta gainerako lanak aurreragorako geldituko dira.

Bestalde, eraikuntzaren azpian ostatua dago, eta taberna bera denda erabilera bateratu baterako egokitu nahi dute. Hau montatzeko metro gehiago behar direnez, Udalak Kaietana Etxea erosi du, eta taberna eta ondoko eraikuntzaren artean lotura egiteko asmoa du, dendaria egokituko zaion espazio berri bat sortuz.

Ondorioz, denda proiektu berri honi dagozkion igeltsaritza lanak ere lan talde honi ematea egoki ikusi dute. Horrenbestez, oraingoz ostatuko komunak bota eta espazio bakarra sortu, eta komun berrietarako tabike berriak egingo dituzte. Gainerako lanak egingo dira diru laguntza baieztapenaren berri izan bezain laster.

Gozotegia, konfitegia eta izoztegia



Teilak eta Zigarriloak

Pablo Gorosabel, 34 • Tel.: 943 65 51 61
San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 65 19 16
TOLOSA

Idoiaga plaza, 5 - 20400 IBARRA - Tel.: 943 67 57 81
San Frantzisko, 25 - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 69 80 62
Azkue, 12 - 20400 IBARRA - Tel.: 943 67 62 59

GORROTXATEGI
Ez badituzu dastatu trufa, krema, abrikot, mugurdi eta maxustaren esne-gainezko kremadun bombak, orain duzu aukera.
Plaza Zarra, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 67 07 27
Fax: 943 67 57 39

GUTUN@K ▶

«Gezurak min egiten du sufritzen ari denaren etxean»

Hiru urte honetan, gure herriko gatazka politikoaren ondorioz hildakorik ez dela izan entzun eta irakurtzeko aukera izan dugu batean eta bestean, etenik gabe gainera. Azkenea Tolosako alkateak martxoaren 5eko Argia aldizkarian: «Hiru urte hildakorik gabe. Hau bakea! Hau bakerako aukera». Barkatu, baina ez da egia, gezur borobila da. ETAK hil ez duen bolada honetan, nik gogoan ditudan 7 hildako izan dira eta torturatuak askoz ere gehiago, eta hori ez da bakea inondik inora. Itxura denez, ezker abertzalekoak hiltzea inor ez hiltzea da, debaldeko festa bihurtuta daukate ezker abertzaleko euskal herritarrek hiltzea.

Angel Berrueta Iruñeako dendaria polizia espainiar batek hil zuen, ez da dudarik, baina aurretik giroa askok gaitzotzen zuten, eta ezker abertzaleagatik senperrenak eta bi bota zituzten haiek guztiak ere ikaragarri lagundu zuten poliziak egindakoa egin zezan: Madril-

go atentatu handi hura zela eta, goizean goiz «basapizti» eta «alimañas»ka hasi zen EAEko lehendakariarengandik hasi eta gezurretan jarraitu zuten PPko guztienganaino, horiek guztiak lagundu zuten ondorengo hildakoak gerta zitezien. Hernanin hil zen Kontxi Sanchez, Ertzaintza tarlean zela. Sakabanaketak ere eraman ditu beste bost lagun, eta larriki zaurituta utzi beste batzuk (Irantzu Abad koman). Horiek ez dira hildakoak komunikabide eta alderdi politiko gehienentzat, ahaztu dituzte, horien gendik ez baitute errentagarritasun politikorik lortuko. ETAK hil izan balitu zazpi lagun, a ze eskandalua, a ze festa pankarta atzean jarrita demokrata guztiak negar plantak egiten!

Hiru urte honetan torturatuak ere ez da izan euskal herritarren artean. Amnistia Internacional gezurretan ariko da urtero-urtero bere txostenean justu kontrakoa esaten duenean. Hau bakea, Jesus, Maria eta Jose!!! Ez da inor aztoratzen horregatik ere. Total, torturatuak «basapizti eta alimañas» direnez, zer axola dio?

Biolentzia guztien kontra omen dauden «demokrata» guztiak ixil-ixilik errentagarritasun politikoa lortzeko auke-

rarik ez dutenean. Semper idem.

«Ezerengatik ezin omen da inor hil, gizakia omen da guztiaren neurri eta helburu»; halaxe predikatu digute beti. Gezurra galanta. 7 hildako eta auskalo zenbat torturatu, eta hau bakea!!!

Honen guztiaren aurrean ETAK eman behar omen du pausoa, beste inork ez du ezer egin behar gertakizun laggarri hauek ekiditeko, itxura denez. ETAK eman beharreko pausoa eman beharko du, baina beste guztiak ez al lukete beste pausoren bat eman behar ETArekin batera. Adibidez, euskal presoak preso politikoak direla aitortzea eta Euskal Herriratzea, jakina, eta su-etena ezin al dira batera egin?

Gatazkari sufrimendua kentzea oso baliagarria litzateke bake prozesuak aurrera egiteko. Gatazka goxatzea, leuntzea, gizatiartzea (tortura eta sakabanaketa desagertzea, tragua...) oso urrats emankorra izango litzateke bake prozesuarentzat, nik uste; eta gezurrik ez esatea ere ez litzateke txarra, sakabanaketak hil dezakeenaren etxean min egiten baitu.

IÑAKI AZALDEGI ARRIETA
(«ALIMAÑA ILEGALA») ▶ TOLOSA

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Lotsagarria

Aste honetan, Igor Angulo eta Roberto Saiz euskal preso politikoak dispertsio politikaren ondorioz gatazkaren azkeneko bi biktima suertatu dira. Azken aste honetako gertakariaren aurrean PNVk eta bere polizia egiten ari direna, erabat lotsagarria da. Gertakizun hauen aurrean eta beste behin ere, Santurtziko eta Portugaleteko kanposantu eta herriko kaleetan azken agurra eman nahi zuten lagun eta senitartekoak bortizki jipoituak eta kolpatuak izan dira PNV eta Balzaren zipaioen eskutik.

Honen aurrean PNVko zerbait buruzagik (Miren Azkarate, Ibarretxe, eta abar) lasaitasuna besterik ez dio eskatu azkeneko 1.000 egun hauetan biktima guztiak jarri dituen aldeari (azken 1.000 egun hauetan egon baitira biktimak, zuek ikusi nahi ez dituzuen aldekoak denak, eta ez dira bi bakarrik izan, 17 baizik).

Beste batzuek, Josu Jon Imaz kasu, indarkeriarekin bukatu behar omen dela, nik zera galdetuko nioke, zer egin behar du bere zipaioek erabiltzen duten indarkeriarekin? Edo, beti bezala alde bateko indarkeria-

ri buruz ari da? Hemen, dirudenez, kategoria desberdinak daude, eta gu 2. mailako edo 3. mailako biztanleak gara. Akaso hildako baten aurrean guk ezin dugu gure senitartekoak bakean eta merezi duten/dugun errespetuarekin ehortzi? Egin duzuen (lehen beste batzuekin egin zenuten bezala) justifikazioa da, nahiz eta zuek justifikatzen saiatu.

Frantziako eta Espainiako Gobernuak hiltzen dituzte presoek kartzeletan, eta zuek zapaltzen dituzte hildakoen memoria eta beraiekiko euskal herritarren errekonozimendua.

Bakea nahi duzuela aldarrikatzen duzue, baina bide horretatik oso oker zabilazte. Bakea eta demokrazia betetzen zaizue ahoa, baina zuek hartutako erabakiek eta probakioek zuen benetako aurpegia erakusten dituzte. Zerk bultzatzen zaituzte horrelako jarrekar hartzea? Benetako bakea nahi al duzue? Ala bakarrik zuen interesak defendatzen eta babesten duen bakea? Inoiz ez da lortuko bakerik, bi aldean arteko arazorik ez da konponduko, alde bakoitzak ez badu bere aldetik zerbait jartzen. Aski da.

MIKEL ZABALA ▶ TOLOSA

VILLABONA ▶ KULTURA

Antzerkia eta abestiak, Gurean

Hodeiertz abesbatza gaur, eta haurrentzako Porpolen 'Ama bat niretzat' bihar

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak bi ekitaldi antolatatu ditu asteburu honetan Gurea aretoan. Porpol antzerki taldeak haurrentzako Ama bat niretzat obra eskainiko du bihar, 17:00etan. Sarrerak lau euro balio ditu. Tolosako Hodeiertz abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, eta sarrera dohainik da.

Ama bat niretzat antzezlanean Adriana 10 urteko haurra- ren istorioa kontatzen da. Gurasoak ez dituenek, erakunde batean hartuta bizi da. Guraso-

ak izatea da bere ametsik handiena, baina zaila ikusten du ametsa egi bihurtzea, hark bizi den lekura haur bat adoptatzea datozen guztiak haur jaio berria nahi dutelako. Dena dela, Adriana giro positiboan bizi da eta, gainera, haren prestakuntzaz arduratzen den pertsonak maitasun handia ematen dio. Adrianak biziki atsegina du dantza egitea eta poz, nostalgia, fantasia eta amets guztiak dantzaren bitartez adierazten ditu. Azkenean ametsa egi bihurtzeko eragilea izango da dantza.



Ama bat niretzat. HITZA

Indiarako bidean

Hodeiertz abesbatzak Indiarako joango da datorren Aste Santuan. Herrialde horretako hainbat hirietan kontzertuak eskainiko ditu. Ekialdean abestuko duten egitarau berdina eskainiko dute gaurko Gureako kontzertuan. Horietako abesti batzuek ondorengoak dira: Zure boza (arm. X. Sarasola); Neskatx'ederra (arm. X. Sarasola); Lili eder bat (G. Lazkano); Loriak Udan (arm. D. Azurza) Sommarpsalm (W. Ahlen) eta Music for a while H. Purcell.

ANOETA ▶

Gomazko paletako Euskadiko finalak, gaur

ERREDAKZIOA

Anoetako frontoian, gaur 10:30ean hasita, Ezker Horriko Euskadiko Txapelketako finalak jokatu dira gomazko paletan nesken kategorietan. Jubenil mailan, Hernani 1 eta Hernani 4 ariko dira lehian. Ondoren, nagusien mailan Anoetako Kuku elkarteak (Maider mendizabal anoetarra eta Nagore Arozena lizartzarra) eta Iruñako Oberena elkarteak lehia- tuko dira.

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK
Suhiltzaileak, Ertzaintza, polizia. 2006ean lanpostu berriak. Infomazioa: 943 313782.
Administrari laguntzaileak. Hurrengo sarrerak: Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil,

Mendora, Anoeta. Hilean 1.500 euro. Doako informazioa. 943 313782.
Garbitzaileak. Lanpostu finkoak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa: 943 313782.

Gidariak. Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. Kontratu mugagabeak. 943 313782.
Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak. Postu libreak Eusko Jaurilaritzan. Asteburuetan libre.

943 313782.
Peoiak, langileak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Lanpostu libreak udaletan. 943 313782.
Aireportuak. Bete behar dituzte:

harreragileak, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak eta mantentze-lanerako langileak. Informazioa: 943 313782.
Harreragileak. Telefonistak, hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. 943 313782.

VILLABONA ▶

EHNAREN
tramitazioak
egiteko aukera

Gaur egin ahal izango dira lehen aldiz EHNAREN tramitazioak Villabonako Kultur Etxean. 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara izango da horretarako aukera, eta errolda agiria, 3 argazki eta 15 euro beharko dira. Hilabete bakoitzeko bigarren larunbatero izango da aurreantzean EHNA tramitatzeko aukera.

BELAUNTZA ▶

Zuhaitz Eguna
antolatu du
gaur Udalak

Zuhaitz Eguna antolatu dute gaur Belauntzan, eta bertako haur eta gurasoei parte hartzeko gonbita luzatu nahi die Udalak. 16:30ean aterako dira Kultur Etxetik, eta herriko bi txokoetan egingo dute landaketa. Guztira, 25 zuhaitz inguru landatzeko asmoa dute. Oinetako egokiak ekarzteaz gomendatu dute antolatzailerak. Zuhaitzak landatu ondoren, txokolatada egingo dute.

PILOTA ▶

Euskadiko
Txapelketa gaur
erabakiko da

Euskadiko Pilota Ligako finalak jokatu dituzte bihar eskualdeko Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Iturri taldeek. Zazpi-Iturri Laudioako Aretan jokatu du 10:30ean, eta Zornotzan 12:00etan. Aurrera-Saiazek Zornotzan jokatu du 10:30ean Artza taldearen aurka. Bestalde, Berria Txapelketari dagokionez, Aurrera-Saiazek Altzako pilotalekuan izango ditu norgehiagokak, 10:30etik aurrera.



Mahala
BASERIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

IBARRA ▶ GIZARTEA

Aste Misiolaria antolatu
dute hilaren 13tik 19ra

Ibarratik Misio Taldeak antolatuta, afari solidarioa, hitzaldiak eta eukaristia berezia izango dira egun horietan

IÑIGO TERRADILLOS

Datorren astelehenean hasita, hilaren 19a bitarte, Aste Misiolaria antolatu du Ibarratik Misio taldeak. Hitzaldiak, afari solidarioa eta eukaristia berezia izango dira egun horietan, eta aurreko urteetan bezala, herri-tarrak parte hartzea animatu nahi dituzte. Bestalde, Aste Misiolaria amaituta, hilaren 25ean, 11. Elkartasuneko Aerobic Maratoi solidarioa antolatu du Misio Taldeak. Bela-bieta kiroldegian egingo da, 16:30ean hasita, eta bertan bildutako dirua Ibarrako taldeak dituen proiektuak laguntzeko erabiliko dute.

ASTELEHENA, HILAK 13

20:00. Caritas-eko Nazioarteko kooperatzailea den Koldo Murok ikus-entzunezkoa eskainiko du. Bidezko merkataritzaren bitartez misioetara laguntza bideratzearen bultzatzailea da Muro. Gipuzkoan, ekimen horren ondorioz, Hirugarren Munduko produktuak bitartekorik gabe erosiak izan daitezten helburua duten hain-



Indiako bi neskatila. Ibarratik Misio taldeak Indiara eginiko bisitan ateratako argazkia da. HITZA

bat gune daude. Horietan bildutako dirua Hirugarren Mundura biddaltzen dute. Ibarran ere jarriko dute produktu horien saltokia Aste Misiolariak irauten duen bitartean.

ASTEARTEA, HILAK 14

20:00. Alza-Larratxon lanean ari den Javier Hernan apaizak eskainiko du hitzaldia. Kalean egiten du lan, auzoan dauden gizarte eta kultura mailako ara-

zoekin. Bestalde, hainbat taldearekin elkarlanean Eritreako Hal Hal ospitalea laguntzen du. Urteetan berak bizitakoaren inguruan jardungo du hitzaldian.

ASTEAZKENA, HILAK 15

20:00. Itziar Arratibelek eskainiko du hitzaldia. Eritrean, osasun arloan, emakumearen egoera hobetzen eta kooperatiba txikiak gauzatzen laguntzen lan egin du den bora luzez. Bertako ikus-entzunezkoen bidez eta berak han bizitakoa baliatuz eskainiko du hitzaldia hango egoeraz.

OSTIRALA, HILAK 17

20:00. Afari solidarioa egingo dute parroko lokaletan. 10 euro ordaindu beharko dira, eta asteazkena, hilaren 15a baino lehen izena ematea komeni dela adierazi dute antolatzailerak. Entsalada, paella eta fruta jango dute, misioetako ikus-entzunezkoak ikusten dituzten bitartean. Ibarratik Misio Taldea GKEren aurkezpena ere egingo dute, eta dituzten helburuak eta azken orduko berriak azalduko dituzte.

IGANDEA, HILAK 19

11:00. Misio izaera izango duen eukaristia, bertan izango diren ikurrengatik, eta parte hartuko dutenengatik. Ekitaldian bildutako dirua, afari solidarioan jasotakoa bezala, Ibarratik Misio Taldeak Hondurasen, Bombain eta Eritrean dituen 4 proiektuak laguntzeko bideratuko dute.

AIZKORA ▶

Urrezko Aizkolarien Bananako Txapelketako
kanporaketa jokatu du gaur Unai Otañok

Ugaitz Mugerzaren aurka egingo du ibartarrak Ataungo San Gregorioko pilotalekuan

I. TERRADILLOS

Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketak aurrera darrai, eta gaur lau kanporaketa berri jokatu dituzte. Ataungo San Gregorio auzoko pilotalekuan izango da lehia, 23:00etatik aurrera, eta bertan Unai Otaño ibartarra ariko da aurrera egiteko txartela lortzeko helburuarekin.

Otañok Ugaitz Mugerza gaztearen aurka neurtuko beharko ditu indarrak; Jesus Mari Lasak Juanjo Lopez Azpilikue-taren aurka egingo du, J. J. Erdoziak Manolo Kañamaresen aurka; eta, azkenik, Patxi Min-

degia eta David Amillanoren arteko lehia izango da.

Aizkolari bakoitzak lau enbor ebaki beharko ditu: lehen-dabizi, 45 kanako enborra moztu beharko dute bertikalean; ondoren, tamaina berekoa erlojupean egin beharko dute, eta hurrengo biak, 54 kanakoa eta 60 kanakoa, jarraian ebaki beharko dituzte. Lan hori egiten denbora gutxien behar duten aizkolaria pasatuko dira hurrengo kanporaketara.

Antolatzailerak Patxi Mindedgiaren buelta azpimarratu nahi izan dute. Hainbat urtetan aizkoratik at egon eta gero, gaur ekingo dio norgehiagokari.

Hainbatetan txapeldun izandako Mikel Mindegiaeren semea aizkolari indartsua eta gaitasun handiak zituen zen. Beste artean, Patxi Mindegia, jubenila zelarik, Senosiain I.a garaitu zuen. Ikusi beharko da gaurko lehian eskaintzen duena, baina ikusmina behintzat sortu du bere bueltak.

Bestalde, Otañok eta Lasak izan duten bilakaera ikusi ahal izango da gaur. Ibartarraren kasuan, ezin esan lan erraza izango duenik; izan ere, Mugerzak Gazteen Binakako Txapelketako finalean maila altua erakutsi zuen, eta gaurkoan ere gauza bera errepika liteke.



Unai Otaño. IMANOL GARCIA

TOLOSA ▶ POLITIKA

Jonan Fernandez ez da Elkarri berriko koordinatzaile eta zuzendaritzakoa izango

13 urtean jardun du Elkarri-ko koordinatzaile nagusi lanetan eta eraldaketa ona dela dio; Paul Riosek hartuko dio lekukoa

ERREDAKZIOA

Igande honetan Bilbon Euskalduna Jauregian egingo dute Elkarri eraldatua osatzeko batzarra, eta albiste garrantzitsu bat gertatuko da. Jonan Fernandez tolosarra ez delako Elkarri berriko koordinatzailea izango, ezta zuzendaritza taldeko kidea ere. Elkarri sortu zenetik (duela 13 urtetik), postu horretan egon da Fernandez. Ekitaldi horretan hautatuko dute zuzendaritza taldea eta Paul Rios da koordinatzaile nagusi izateko hautagai bakarra.

Koordinazio taldea 11 pertsonen osatuko dute eta honakoak dira hautagaiak: Paul Rios bera, Fernando Arzallus, Blanca Burusko, Andoni Mendizabal, Pablo Martinez, Iosu

Urra, Maixux Rekalde, Itziar Fernandez, Iñaki Arzak, Jose Mari Agirre, Rosi Garrido, Patxi Lazaro eta Joseba Saban.

Rios izango da ziurrenik Elkarriren oinordeko izango den erakunde berriko koordinatzaile nagusia. Fernandez Elkarriko koordinatzaileak txalotu egin du ordezkapena. «Erakunde berriarekin elkarlanean jarraituko dut baina ez zuzendaritzatik, oinarritik baizik. Nire indar guztiarekin Paul Riosi eta martxoaren 12an aukeratu den talde berriari babes osoa emanez». Fernandez ustez, eraldaketa hori ona da ikuspegi guztietatik: «Ikuspuntu guztietatik eraldaketa ona dela uste dut; ziklo berri batean sartzen garelako, proiektua berria delako eta 13

urteren buruan gizarte erakunde bat eraberritzea osasuntsua eta baikorra delako».

Gizarte mugimenduetan

1992ko abenduaren 13an Elkarri sortu zenetik, Jonan Fernandez (Tolosa, 1962) izan da gizarte mugimendu horren aurpegiak ezagutua. Hark 30 urte zituen eta arlo publiko lanean esperientzia handia: Batzuzarpan Tolosako gazte asanbladan ibili zen buru-belarrari 80ko hamarkadako lehen urteetan, eta HBko zinegotzi ere izan zen. Baina Euskal Herriko gizarte bizitzaren plazara Irurtzun-Andoain autobieren inguruan sortutako gatazkak eta errepide proiektuaren aurkako mugimenduan egindako

gidaritza lanak (Autobidearen Aurkako Koordinakundean aurrena, eta Lurraldea mugimenduan ondoren) eraman zuen; bereziki, mugimendu horren buru zela Gipuzkoako Diputazioarekin eta Nafarroako Gobernarekin autobidearekin beste bide bat hitzartu izanak.

90eko lehen urteetan puripurian egon zen autobieren gatazka. Ingurumen arlo hutseko auzi izateari utzi, eta alderdi politikoez zein ETAK gaiaren inguruko jarrera argia hartu zuten, kutsu politikoa nabarmena hartu zuen. Ondorioz, Lurraldeak erakundeekin lortutako akordioak garrantzi politikoa izan zuen. Hain justu, Elkarri sortu zutenen asmoen oinarrian autobieren inguruko akordioaren esperientzia baliatzea zegoen. Hala, Lurraldea taldearen bozeramaile nagusiak Elkarri-ko eledun bihurtu ziren: Fernandez bera eta Bittor Aierdi.

LEITZA ▶

Liderrarekin jokatu dute Aurrerako gazteek gaur

Mutiloako Union Mutilvera taldea izanen dute arerio Arkixkilen, 16:30ean

J. ASTIBIA

Liderraren bisita izanen du gaur arratsaldean Arkixkilen Aurrerako talde gazteak: 16:30ean hasiko da Union Mutilvera taldearen aurkako partidua.

Mutiloako taldea jubentakotako bigarren mailako sailkapen buruan dago, 47 puntu eskuratuta. Ondorioz, arerio gogorra izanen dute, leitzarrek. Etxekoak 12. daude.

Bestalde, aitatu lurraldekakoan, Aurrera taldeari atseden egitea egokitzen zaio jardunaldi honetan. Hau sailkapen buruan dago.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernaldea. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

- Garraioak.**
- ▶ Renfe Tolosa: 652889
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi goitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ POLITIKA



Berdentzabart egindako «kontrolik gabeko ezezagunen» ekintzak

Erredakzioa ▶ Ostegunetik ostiralerako gauean «kontrolik gabeko ezezagunen» herriko plazan, armarriaren ondoan Etxerat-ek jarritako kartzela «irauli eta txikitu» dutela salatuko dute. Irudietan ikusten da, ezkerrekoan, bezperan, greba orokorrerako deialdia

egina zegoen egunean, bere lekuan zegoela aitatutako kartzela. Biharamonean, atzo goizean, ordea, eskuineko irudian ageri den bezala agertu zen. Kartzela horren barrenean, Igor Astibiaren eta Eneko Aizpururen, herriko bi presoek argazkiak daude. HITZA

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Klikatu! Hainbat atal desberdin aurkituko dituzu: herrietako informazioa, agenda, zerbitzuak (guardiako framaizak, telefono interesgarriak...), eztabaidaguneak, inkestak...

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Furgoneta. Citroen Berlingo. 2003koa. 30.000 kilometro. Oso egoera onean. Deitu 635 73 63 75 telefono zenbakira.
Kopistegia. Alokairuan edo salgai, lbarran kopistegia-inprimaketa digitala. Laguntza izango duzu.

Interesatuak deitu 615 73 61 85 telefono zenbakira.
Etxebizitza. Andoaingo Olagain auzoan pisua salgai. 82 m²-koa, 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, eta trasteleku txikia. Eguzkitua eta bista ederrekin. 943 590 158.

LANA

Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. 635 74 52 91.
Saltzailea. Belar denda batean lan egiteko saltzailea behar da. Interesatuak deitu 665 70 64 04ra.

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko martxoaren 11, larunbata ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Leitza. Nafarroako Bertsolari Txapelketako 2. finalerdia: Diego Riaño eta Migel Mari Elozegi leitzarrak, Julen Zelaieta, Etxabe, Bittor Elizagoien, Oier Lakuntza. 18:30ean, zinemana.
Tolosa. Erretiro eta otoitzaldia, gaztelaniaz. 10:30etik 12:00etara, Santa Maria parrokian.
Tolosa. Santa Maria kaperak eta Udalak omenaldia egingo dio Pepe Arzelus organistari hilaren 19an. Bazkarirako (Frontonen) txartelak salgai Zabala estankotan, Lardiesen eta Santa Maria parrokian.
Zizurkil. Txapel Egunean, Joxe Mari Mendizabali jarriko zaio txapela. 23:00etan, Zentroan, afaria eta gero.

MUSIKA

Tolosa. Humus, Izaera eta R. 22:30ean, Bonberenean.
Villabona. Itaka eta Mix6t, Gaztekean, 22:00etan.

ZINEMA

Leitza. *El jardinero fiel.* Bihar, 19:30ean, zinemana.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo, 20. 676013.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Hitzak hegana* magazina.

Goiko irratiak (107.0 FM)
13:00. *Komerra* magazina.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariari adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



Irurako udaletxean harrera egin zien atzo alkateak ikasleei. I. GARCIA



Adunan egindako elkarretaratzea. HITZA

Ikastetxetik gizarte osora

TOLOSALDEA ▶ Aste honetan Emakumearen Nazioarteko Eguna izan da eta hainbat ekitaldi burutu dira, bai ikasleei bai gizarte osoari zuzenduta

ERREDAKZIOA

Emakumearen Nazioarteko Eguna izan da aste honetan eta hainbat ekitaldi egin dira egunotan. Irurako Ikastolan, esaterako, hezkidetzak kanpaina burutu dute. Atzo eman zioten amaiera, urtero legez, Marimi Ugalde alkateak haurrei udaletxean harrera eginez. Ikastolan egindako lanari buruz hitz egin ondoren,

alkateak opariak zozketatu zituen ikasleen artean eta ondoren merienda egin zuten. *Zer egin dezakegu elkarrekin?* izan da hezkidetzak kanpaina garatu duten gaia. Marrazkiak egin dituzte ikasleek, adibidez, gaia kontuan hartuta. Udaletxean izan dira ikusgai eta haurrek bere burua gurasoenekin etxeko lanak egin eta lagunekin jolasean murriztu dute.

Eskoletan jorratzen den emakumearen eta gizonaren arteko berdintasuna helburu izan behar du gizartearen eta hori aldarrikatu zuten Tolosan eta Adunan egindako elkarretaratzeetan. Azken honetan irakurritako idatzian, aldarrikapenez gain salaketak ere egin ziren: «Euskal Herrian bertan, lan munduan, oraindik alde handia dago bai soldatetan bai lan baldintzetan... Berdintasuna

na ez da heldu beste hainbat alorretara ere: kiroletara, etxeko lanen banaketara, arduetara... Horiek dira salaketetako batzuk, baina gogorragoak ere baditugu egiteko: iaz 61 emakume hil zituzten bikoteek edo bikote izandakoek. Komisarrietan jarritako salaketak ere ikaragarri dira, baina ez dute ezer egiten arazoa konpontzeko. Noiz arte jarraitu behar dugu horrela?».

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Uxue (Alitzo).
Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



ZORIONAK
Maddi Senperena
Aranbururik! Gaur 2 urte. Gora marboak!!! (Goitziz).



Maddi Zhong Aleman Pagola (Leitza-Tolosa).
Bi urte gure besotetan jaso zintugula mailo artean. Eskerrik asko hain mota garria izateagatik. Guraso, aiton-amon eta gainerakok.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletzeko bulegoa

hitza
agurren tarteak
Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberrak...

hitza
txokoa lagunen

▶ HITZAko harpidedunen artean Tolosa 750 Fundazioak antolatuturiko

SORKUN eta AMPARANOIA

taldeen kontzerturako 10 sarreren irabazleak:

- Josune Agirrezabala Zubillaga (Tolosa)
- Zigor Leunda Eizmendi (Villabona)
- Mirari Artola Iturralde (Tolosa)
- Karmen Sanz Hernando (Tolosa)
- Iñigo Karrera Tadeo (Tolosa)

Sarrerak lehiatzen jaso ahal izango dituzue 20:00etatik aurrera.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero